DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
DSS2016.EU

# ADIORIK GABE

## Hitzak eta hotsak oroibide



BAKEA
PAZ

donostiakultura.com

ADIORIK GABE Donostia 2016ren Bakearen itsasargiak sustatutako ekimen bat da. Terrorismoaren eta indarkeriaren biktimen bizitzen oroimenezko hiru ekitaldik osatzen dute. Ekitaldi horiek oroimen eta aitortza barne-hartzaileko adierazpen kolektibo bat izango dira, giza eskubideekiko errespetuzkoa.

Juan Manuel García Cordero, Eugenio Olaciregui Borda, Mikel Zabalza Garate, Rafael Garrido Gil, Daniela Velasco Domínguez de Vidaurreta eta Daniel Garrido Velascoren memoria musikal edo literarioaren berreraikitze-lan bat egin nahi izan dugu, adiera zabal eta libre batean ulertuta, eta horren emaitza da orain zuei atsegin handiz aurkezten dizueguna.

Haien senideekin batera egindako eraikitze-prozesu bat izan da hau. Senideekin elkartu eta, eskaini dizkiguten lekukotzen bitartez, arte horiei (musika eta literatura) lotutako haien sentsibilitateak bildu nahi izan ditugu, pieza eszeniko batzuk berariaz sortzeko asmoz: gaur ikusgai dituzuenak, hain zuzen. Donostiak, pertsona haiek bere baitan hartu zituen hiriak, honela nahi ditu oroitu. Indar osoz. Haien familiek haiekin partekatutako bizitzak –hain bidegabeki etenak izan ziren bizitza haiek– oroimenean gordetzean ageri duten indar berarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu *Adiorik gabe* ekimenean parte hartu duten familiei, beren bizipenetan eta hain maiteak zituzten pertsonen oroitzapenetan partaide egin gaituztenean agertu duten berotasunagatik eta eskuzabaltasunagatik.

Ekimen hau antzeko egoerak bizi izan dituzten familia guztientzat babeslekua eta bihotz-gozagarria izatea nahiko genuke, nahiz eta jakitun garen luzea dela prozesua, gizartearengandik erantzun ezberdinak eskatzen dituela une bakoitzean, eta familia guztiak ez daudela prozesuko puntu berean. Bihoakie haiei guztiei ere gure oroipena.

*«Errealitatea ezagutzeko, errealitateaz kargutzeaz eta errealitatea kargatzeaz gain, errealitatearen kargu ere egin behar da»*

**Ignacio Ellacuria**

Antzoki Zaharra, Donostia, 2016ko uztailaren 2a.



## Juan Manuel García Cordero

**Komando Autonomo Antikapitalistek hil zuten, Ulian, 1980ko urriaren 23an.**

*Erretratu destilatu, konprimitu eta desordenatu bat, bere barruan biltzen duen memoria bezalakoa, egokituz doa, bizi-esentziek beteriko puzzle bat osatu arte. Ustekabeko absentziak puzzlea suntsitu duela ematen du, baina piezek hor diraute: Juanmak utzi ditu, denentzat. Eta jakingo dute puzzle hori berregiten eta berrosatzen, berarentzat; hemen utzi zituen guztientzat, berak erakutsi bezala bizitzaz gozatzen eta bera oroimenean gordetzen geratu direnentzat.*

***Teresa***

Zuzendari artistikoa: **Teresa Calo**
Gidoia: **Teresa Calo**
Aktorea: **Jonan Alonso**
Aktorea: **Silvia Manzana**
Irudi grafikoa: **Sara Zamarro**

## Eugenio Olaciregui Borda

**ETAk hil zuen, Ategorrietan, 1997ko urtarrilaren 30ean.**

*Bizkor asko igarotzen dituzu bizikleta gainean gure geografiako errepideak; aldiz, motelago eta kontu handiagoz gure mapa emozionaleko txokoak, zure gizatasunak ondo markatuta geratu behar baitu (halaxe geratu zen lehen, eta halaxe geratuko da bihar ere). Aurrera egin ahala ebakitzen duzun haizeak txistu jotzen du igarotzen zarenean, zeuk hala eraginda; zure bizitzako abestien doinuak sortuz. Zer-nolakoa da kaskabilo baten soinu-banda, zabaltzen eta banatzen zenuen pozaren metafora haren hotsa? Zer dela eta da, oraindik ere, horren garrantzitsua zure umorea eta maitasuna? Kontatu eta kantatu egingo dugu. Markaz jositako paper baten tarte estu eta mugatuan zure barre-algara non ipini ari naiz bilatzen, zure hutsuneak uzten digun zera hori nola harmonizatu.*

***Iñaki***

Zuzendari artistikoa: **Iñaki Salvador**
Pianoa eta testuak: **Iñaki Salvador**
Ahotsa: **Ainara Ortega**
Saxoa: **Mikel Andueza**
Aktorea: **Kike Díaz de Rada**

## Mikel Zabalza Garate

**Guardia Zibilak atxilotu zuen 1985eko azaroaren 26an. Guardia Zibilaren zaintzapean zegoela, haren gorpua agertu zen Bidasoa ibaian, 1985eko abenduaren 15ean, indarkeria-zantzuekin.**

*Kaixo, Mikel!*

*…ez nauzu ezagutzen eta nik ez zintudan ezagutu…*

*Baina, azken aste hauetan Lourdesekin, Anarekin, Pellorekin, Begotxurekin, Ohianarekin… solasean ibili naiz. Zu ezagutu eta maitatu zintuztenekin, alegia; zure gertutasunaz eta irribarreaz -«bizarra irekitzen zizun zure irribarre horretaz», Idoiaren, zure ahizparen, hitzetan- gozatu zutenekin. Eta haiekin egon eta gero, zuri gutunak idazten hasi naiz. Bai, bai, ez barre egin. Zuretzako gutunak, zugana hurbiltzeko. Horrela, zu ezagutuz joan naizelako. Eta orain jada zutaz oroit naiteke.*
*P.D.:*
*Jarraituko dut zuri gutunak idazten.*

***Mireia***



Zuzendari artistikoa: **Mireia Gabilondo**
Gidoia: **Patxo Tellería/ Mireia Gabilondo**
Aktorea: **Ainhoa Aierbe**

Kantaria: **Amagoia Cabodevilla**
Irudiak: **David Bernués**
Soinu paisaiak: **Xabi Erkizia**

*Esker bereziak Iñigo Ganzaraineri laguntzagatik*

## Rafael Garrido Gil, Daniela Velasco Domínguez de Vidaurreta, Daniel Garrido Velasco

**ETAk hil zituen, Boulevarden, 1986ko urriaren 25ean.**

*Aragoik –ibaia eta nazio txikia, itsasora iritsi ez zen Pirinioetako ura– eraman zituen Rafael eta Daniela Zangozatik, beren jaioterritik, mendi horietara eta hain sakonki maitatu zuten aire zabaleko bizitzara. Beste ibai batek, haien baterako bizitzarenak eta seme-alaben bizitzarenak, bere bidea egin eta, oraingoan bai, itsaso batera eraman zituen. Kantauri itsaso harrotu eta asaldatura, solas egiteko eta kantatzeko hizkuntza ezberdinak darabiltzan horretara. Danielen hizkuntza, adibidez, aita bezala lehen pausoak ematen hasia baitzen euskaraz, edo Maria Josérena… O mar fala de ti…*
*Edo elkarrekin gogoratzen eta kantatzen ditugun abestiak, suaren inguruan babes hartuta, kontenplaziorako eta ametserako gonbita geure eginda…*

*Bello Candanchú,*
*en tus montañas yo encontré,*
*a mi dulce montañera,*
*la que me enseñó a querer.*

*Joxan*

Zuzendari artistikoa: **Joxan Goikoetxea**
Akordeoia eta pianoa: **Joxan Goikoetxea**
Ahotsa: **Sonia Yaben**
Gitarra: **David Escudero**
Gitarra: **Iosune Marín**
Kontrabaxua: **Lerman Nieves**
Bideoa: **Sendoa Lusarreta**

## Rafael Garrido Gil, Daniela Velasco Domínguez de Vidaurreta, Daniel Garrido Velasco

**Asesinados en el Boulevard por ETA el 25 de octubre de 1986.**

*Aragón, río y pequeña nación, agua del Pirineo que al mar no llegó, llevó a Rafael y Daniela desde su Sangüesa natal hasta esas montañas y a la vida al aire libre por la que profesaron y transmitieron un profundo amor. Otro río, el de su vida juntos y el de las vidas de sus hijos, siguió su cauce desembocando, esta vez sí, en un mar. Un embravecido y agitado Cantábrico que nos habla y nos canta en distintas lenguas. Como la de Daniel que se había iniciado al igual que su padre en el euskera o como la de Maria José… O mar fala de ti…*
*O como las canciones que recordamos y cantamos juntos en torno a la lumbre de una fogata que nos cobija e invita a contemplar y a soñar…*

*Bello Candanchú,*
*en tus montañas yo encontré,*
*a mi dulce montañera,*
*la que me enseñó a querer.*

***Joxan***

Dirección artística: **Joxan Goikoetxea**
Acordeón y piano: **Joxan Goikoetxea**
Voz: **Sonia Yaben**
Guitarra: **David Escudero**
Guitarra: **Iosune Marín**
Contrabajo: **Lerman Nieves**
Vídeo: **Sendoa Lusarreta**

## Mikel Zabalza Garate

**Detenido por la Guardia Civil el 26 de noviembre de 1985. Estando custodiado por la Guardia Civil, su cuerpo apareció el 15 de diciembre de 1985 en el río Bidasoa con signos de violencia.**

*Kaixo, Mikel!*

*… no me conoces y yo no te conocí…*

*Pero en las últimas semanas, después de hablar con Lourdes, Ana, Pello, Begotxu, Ohiana…*
*bueno, con los que sí te conocieron y te quisieron y disfrutaron de tu cercanía y de tu sonrisa, de "esa sonrisa tuya que abría tu barba", como dice tu hermana Idoia, he empezado a escribirte cartas; sí, no te rías, cartas para ti, para acercarme a ti, porque así he ido conociéndote y, ahora, ya puedo recordarte…*
*P.D:*
*Te seguiré escribiendo.*

***Mireia***



Dirección artística: **Mireia Gabilondo**
Guión: **Patxo Tellería/ Mireia Gabilondo**
Actriz: **Ainhoa Aierbe**
Voz: **Amagoia Cabodevilla**
Imágenes: **David Bernués**
Paisajes sonoros: **Xabi Erkizia**

*Gracias por su colaboración a Iñigo Ganzarain*

## Eugenio Olaciregui Borda

**Asesinado en Ategorrieta por ETA el 30 de enero de 1997.**

*Atraviesas raudo con tu bicicleta las intrincadas carreteras de nuestra geografía física y, más lenta y cuidadosamente, las de nuestro mapa emocional, porque la huella de tu bonhomía ha de quedar (quedó y quedará) bien marcada. Cortas el viento y éste silba a tu paso y por tu causa; y lo hace generando el sonido de las melodías de las canciones de tu vida. ¿Cómo es la banda sonora de un cascabel, metáfora de la alegría que administrabas y regalabas? ¿Por qué nos sigue siendo tan necesaria la materia prima de tu sentido del humor y del amor? Lo vamos a contar y a cantar. Estoy buscando, en el estrecho y limitado espacio de un papel pautado, dónde colocar tu carcajada y cómo armonizar la manera en que nos faltas.*

***Iñaki***

Dirección artística: **Iñaki Salvador**
Piano y textos: **Iñaki Salvador**
Voz: **Ainara Ortega**
Saxo: **Mikel Andueza**
Actor: **Kike Díaz de Rada**

## Juan Manuel García Cordero

**Asesinado en Ulia por los Comandos Autónomos Anticapitalistas el 23 de octubre de 1980.**

*Un retrato destilado, comprimido, desordenado como la memoria que lo contiene, se va acomodando hasta formar un puzzle lleno de esencias de vida. La ausencia inesperada parece destruir el puzzle, pero las piezas están allí: Juanma las ha dejado para todos. Y sabrán reconstruirlo y seguir completándolo para él; para todos los que dejó aquí, recordándolo, festejando la vida como él les enseñó.*

*Teresa*

Dirección artística: **Teresa Calo**
Texto: **Teresa Calo**
Actor: **Jonan Alonso**
Actriz: **Silvia Manzana**
**Diseño gráfico: Sara Zamarro**

SIN ADIÓS es una iniciativa impulsada por el Faro de la paz de San Sebastián 2016 consistente en la organización de tres actos de recuerdo de las vidas de víctimas del terrorismo y la violencia, que supongan una expresión colectiva de memoria y reconocimiento incluyente y una manifestación de respeto a los derechos humanos.

Hemos realizado un ejercicio de reconstrucción de la memoria musical o literaria, en el sentido más amplio y libre, de Juan Manuel García Cordero, Eugenio Olaciregui Borda, Mikel Zabalza Garate, Rafael Garrido Gil, Daniela Velasco Domínguez de Vidaurreta y Daniel Garrido Velasco, cuyo resultado es el que hoy nos complace presentaros.

Este ha sido un proceso de construcción compartido con sus familiares. Nos hemos encontrado con ellos para, a través de sus testimonios, recoger sus sensibilidades vinculadas a las citadas artes (música y literatura) con la idea de crear ex profeso unas piezas escénicas que son las que se representan hoy. San Sebastián, la ciudad que les acogió, desea recordarles de esta manera, mostrando toda la fuerza con la que sus familias atesoran los recuerdos de las vidas que compartieron y que fueron tan injustamente truncadas.

Queremos agradecer a las familias participantes en Sin adiós el calor y la generosidad con la que han compartido sus vivencias y recuerdos de sus seres queridos con nosotros.

Nos gustaría que todas las familias que han sufrido circunstancias similares se sintieran acogidas y reconfortadas por esta iniciativa, aunque entendemos que no todas se hallan en el mismo punto de un proceso que es largo y que, en cada momento, necesita distintas respuestas por parte de la sociedad. Para todas ellas es también nuestro recuerdo.

*«Se conoce la realidad cuando, además de hacernos cargo de la realidad y de cargar con la realidad, uno se encarga de la realidad»*

**Ignacio Ellacuria**

Teatro Principal de San Sebastián, 2 de julio de 2016.



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
DSS2016.EU

# SIN ADIÓS

## Música y letras para recordar



BAKEA
PAZ

donostiakultura.com